

## PRENTSA OHARRA

### Zuhaitz, landare eta baserri tresnerien XVIII. azoka ospatuko da larunbatean Markina-Xemeinen

**Musika Eskolako ikasleen kalejira, taloak dastatzeko postuak eta 'Hamen Bertokoa' ekimenaren otzararen zozketa izango dira aurtengo nobedadeak**

Lore, landare, zuhaitz eta baserriko produktu eta tresneria ikusi eta eskuratzeko aukera eskainiko du beste urte batez Markina-Xemeinen ospatuko den Zuhaitz, landare eta baserri tresnerien XVIII. azokak. Lea-Artibaiko Landa Garapen Elkarteak eta Markina-Xemeingo Udalak antolatzen duten ekimena larunbatean (otsailak 8) ospatuko da, 10:00etatik 14:00etara, Zelaian. Aurten, nobedade moduan, Udal Musika Eskolako ikasleek trikiti eta pandero doinuekin girotuko dute azoka gunea, non taloak dastatzeko postuak ere egongo diren.

Azken urteetan lez, mintegiak eta bertako ekoizle eta artisauen postuak izango dira azokan. Mintegiei dagokienez, hamaika postu izango dira aurten. Besteak beste, zuhaitz, landare, lore edota haziak edukiko dituzte aukeran. Baserriko produktuei dagokienez, hamabi ekoizle egongo dira, gehienak herrikoak bertakoak. Besteak beste, gazta, yougurt-a, ogia, gozoak, ardoa, ezta, mermeladak, txerrikiak, ahatekiak, sagardoa eta txakolina eskainiko dituzte. Horiekin batera, loreak, panpinak, *pachwork* eta txalapartak egiten dituzten artisauak ere egongo dira.

Aipatzeko da, aurten bertako produktuekin osatutako otzara batean zozketa egingo dela 13:00etan, Hamen Bertokoa ekimenaren eskutik. Leartibai Garapen Agentziaren ekimenez sortua, Lea-Artibain ekoiztutako elikagaiak eskualdeko herritarren artean ezagutzera emateko proiektua da Hamen Bertokoa, produktu hauen ekoizpena eta kontsumoa sustatzea helburu duena. Proiektu honen parte diren ekoizleen postuetan erosketak egiten dituztenek otzararen zozketan parte hartuko dute.

*Markina-Xemeinen, 2020ko otsailaren 4an*

---

## NOTA DE PRENSA

### El sábado se celebrará la XVIII. edición de la feria de plantas, flores y maquinaria agrícola de Markina-Xemein

Entre las novedades de esta edición destacan la *kalejira* de los alumnos de la Escuela de Música, los puestos de talos y el sorteo de la cesta de 'Hamen Bertokoa'

Un año más, la feria de plantas, flores y maquinaria agrícola de Markina-Xemein brindará la oportunidad de ver y adquirir gran variedad de flores, plantas, árboles y productos y maquinaria agrícola. Organizada por la Agencia de Desarrollo Rural Lea-Artibai y el Ayuntamiento de Markina-Xemein, la cita será este sábado (8 de febrero), de 10:00 a 14:00 horas, en el Prado. Como novedad, los alumnos de la Escuela de Música amenizarán al mediodía el recinto ferial, donde también habrá puestos de talos.

Como en ediciones anteriores, la feria contará con gran variedad de viveros y puestos de productores y artesanos. En total habrá 9 viveros procedentes de distintos puntos del País Vasco. En lo que se refiere a la oferta agrícola, habrá un total de 12 puestos donde se ofrecerán gran variedad de productos: yogurt, pan, dulces, vino, miel, mermelada, carne, sidra, txakolí, etc. También participarán artesanos de todo tipo que ofrecerán productos tan variados como flores, muñecas, *pachwork* o txalapartas.

Por último, cabe destacar que a la 13:00 se realizará el sorteo de una cesta compuesta por productos locales de la mano de Hamen Bertokoa. Impulsado por la Agencia de Desarrollo Leartibai, Hamen Bertokoa es un proyecto que pretende dar a conocer entre los ciudadanos de la comarca los alimentos producidos en Lea-Artibai, siendo su principal objetivo incentivar la producción y consumo de dichos productos. Todos aquellos que realicen sus compras en puestos de productores adheridos a esta iniciativa participarán en el sorteo de la cesta.

*En Markina-Xemein, a 4 de febrero de 2020*